[LAN-KOADERNOA]

2017

Unitate didaktikoak
Unidades didácticas

Xabier Mina
(Nafarroa, 1789 – Mexiko, 1817)

Otaoko Batzordea
Comité de Otano

***Asociación Xavier Mina* Elkartea**

AURKIBIDEA

GEOGRAFIA ETA HISTORIA
I) NAFARROATIK MEXIKORA 2
1. Vida de Xavier Mina (Cast) *2*
2. Minaren gorabeherak (Eus) 4
3. Cronología (Cast) *6*
4. *El Corso Terrestre de Navarra / La Grande Armée* (Eus / *Cast*) 8

GIZARTEA
II) LABIANO, 1810 10
1. Nor da nor? (Eus) 10
2. Ibilaldiak / *Marchas* (Eus / *Cast*) 14
3. Adiskideak eta traidoreak (Eus) 15

MATEMATIKA
III) ATLANTIKOAN ZEHARREKO ITSASALDIA 17
1. Atlantikoan zeharreko itsasaldia (Eus)

ARTEA
IV) OLERKIAK ETA IRUDIAK 23
1. Bertsoak eta kantak / *Poemas y canciones* (Eus / Cast) 23
2. Murales (Cast) *26*

HIZKUNTZAK
V) NARRAZIOAK 32
1. Itzuli-mitzuli *(Cast)* *32*
2. Kontu-kontari (Eus / Cast) 35

I) NAFARROATIK MEXIKORA

1. Vida de Xavier Mina

Lee el siguiente texto sobre Xavier Mina y completa las actividades que te proponemos a continuación.

Mina, el universal libertador navarro

El conocimiento que se ha tenido de Xavier Mina hasta ahora ha sido escaso debido sobre todo a la utilización ideológica, para repudiarlo y ocultarlo, desde el campo del absolutismo. Mientras que, de forma acertada es símbolo generalizado de las libertades e independencia, especialmente en México.

El 1 de julio de 1789 nace en Otano (Valle de Elortz), **…(1)….** Xavier Mina vio con sus propios ojos cómo eran expoliados los labradores **…(2)…..** Conoció las ideas de la ilustración y el despertar de las ansias de libertad e igualdad desde niño estudiante.

Para poder defender la libertad de Navarra, sus Cortes reunidas, durante los años 1794 y 1796 en Iruña, trataron tres memoriales sobre la organización del ejército propio navarro. Entonces Juan José Mina Espoz, **…(3)…** que hicieron frente al ejército francés de la Convención. Trece años después Xavier era el Comandante General de las Guerrillas de Navarra con tan sólo veinte años. En agosto de 1809 llevaba la dirección y organización del ejército de Navarra con gran éxito sobre las tropas francesas.

Su liderazgo pronto se puede seguir entre 1809-1810 por los recortes de prensa de la época. La detención el 29 de marzo de 1810 en Labiano, **…(4)…** a no ser que ello pueda ser perjudicial para el país, en cuyo caso manda que lo envíen a Paris como preso de Estado, es decir, político, por eso estuvo allí cuatro años en prisión. Al salir de la cárcel Xavier Mina tuvo que hacer frente a la ofensiva global europea de los absolutistas, ya iniciado el Congreso de Viena, por lo que encabezó el levantamiento libertador del 25 al 26 de septiembre de 1814 en Pamplona, viéndose impelido con sus compañeros a huir para no ser asesinados todos, y poder continuar la lucha contra el despotismo colaborando con los mexicanos, y haciéndose uno más de ellos, en la guerra de recuperación de la independencia a que se habían visto en la necesidad de entrar.

La reunión en Puerto Príncipe, **…(5)…** según reconoce él mismo. Hubo connivencia entre Mina, Bolívar, Carrera y otros dirigentes sobre la liberación de América, pues de seguida vienen los alzamientos de buena parte del continente americano.

Xavier Mina sobre las posturas de indiferencia ante la injusticia y la dominación advierte, si "…millones de habitantes que indiferentes a los impulsos de la libertad se sometieran voluntariamente, serían después los instrumentos más adecuados para imponer cadenas a todo

el resto.”. “La patria no está circunscrita al lugar en que hemos nacido, sino más propiamente, al que pone a cubierto nuestros derechos personales”.
Xavier Mina es Benemérito de la Patria en Grado Heroico, por su lucha y sacrificio a favor de la independencia del pueblo mexicano; su nombre está grabado en letras doradas en el Congreso de la Unión, o Asamblea Nacional de México, sus restos descansan en el Monumento a la Independencia y su imagen y nombre figura en monedas, calles, colegios, aeropuerto, hasta una ciudad lleva su nombre.

Autor: Tomás Urzainqui Mina

Fuente: Asociación Xavier Mina Elkartea. http://xaviermina.org/2017/11/09/mina-el-universal-libertador-navarro/

1a. *En el texto que acabas de leer, al impresor se le han olvidado incluir 5 frases. Trata de ayudarle a colocarlas en su sitio.*

(a) padre de Xavier que tenía siete años, estuvo integrado en los batallones navarros

(d) por medio de las exorbitantes pechas

(c) supone la intervención directa de Napoleón que ordena expresamente que se le pase de inmediato por las armas

(e) precisamente en la época donde la humanidad está comenzando a emanciparse de las cadenas

(b) Haití, de los líderes emancipadores, donde los planes del General Xavier Mina seducen a Simón Bolívar

1b. Concurso de microrrelatos.

- *Después de leer el texto de presentación de Xavier Mina, escribe una microrrelato sobre este personaje navarro, en una cartulina redonda (entre 8 y 15 cm. de diámetro) y cuélgalo en un "móvil" (como muestra la fotografía) junto a los de tus compañeros y compañeras.*
- *Una vez escritos y colgados todos los microrrelatos podéis votar y elegir entre todos y todas las mejores historias, las más tristes, las más alegres, las más divertidos o las más interesantes.*

El microrrelato es un texto breve en prosa (pocas líneas o palabras), de carácter narrativo, histórico o ficcional, que usando un lenguaje preciso y conciso cuenta una historia sorprendente.

2. Minaren gorabeherak

Xabier Mina

Bizitza laburra baina oparoa, Minarena: 1789an Otaon jaioa, euskalduna; Nafarroan Napoleonen kontra borrokatu zen gerrillari buru, preso jausi arte 1810ean; Frantziako espetxeetatik irtendakoan, Fernando VII.aren kontra altxatu zen Iruñean 1814an; Frantzian berriro espetxean eta ihesi ibili ondoren, Ingalaterrara joan zen aterpe bila 1815ean; handik Galiziako Porlieren altxamenduari lagundu omen zion; matxinada horren porrotaren ostean, Penintsulako eta Ingalaterrako liberal batzuek (Holand, Russell, Blanco White, Florez Estrada) eta Ameriketako abertzaleek (Scott jeneral angloamerikarra, Fagoaga anaiak, Servando Mier) lagunduta, Mexikoranzko espedizio baten buru bilakatu zen, han Morelosek bideratzen zuen independentziaren aldeko matxinada sustatzearren; 1816an Ingalaterratik Ameriketara abiatuta, Virginian, Haitin eta Galvestonen 300 ofizialeko gudaroste bat atondu zuen Bolivar askatzailearen, Aury komodoroaren eta Petion Haitiko presidentearen laguntza jaso ondoren; azkenik, *División Auxiliar de la República Mexicana* gudarostearen buru 1817an Mexikoko Tamaulipaseko hondartzetan (Soto La Marina) lehorreratu zen eta Mexikoren independentziaren alde gerra egin zien Espainiako errealistei zazpi hilabetez, 1817an fusilatu zuten arte, 28 urte zituela. *"Salud y libertad"* idazten zuen Xabierrek bere sinaduraren ondoan

2a. Ordenatu. Hainbat fitxa bildu ditugu Xabier Minaren ibilbideari eta haren garaiko gertaerei buruz. Baina, zoritxarrez, ordenagailuko birus batek datak eta gertaerak nahastu ditu. Informazioa bilatzeko eta fitxak ordenan jartzeko talde txikietan bildurik, jakingo zenuke esaten noiz zer gertatu zen hurrenkera egokian?

1. D'Armagnac mariskalaren agindupean Frantziako gudarostea Iruñean sartu zen.	**1789/04/14**
2. Apodaca erregeordeak aginduta, Mina fusilatu zuten Bellaco mendian.	**1789/07/01**
3. Tuterako goarnizioari eraso zioten gerrillariek, baina atzera egin behar izan zuten herria arpilatu ondoren.	**1793/01/21**
4. Frantziako Iraultza: Parisko herritarrek Bastilla hartu zuten.	**1808/02/16**
5. Mina Vincenneseko gotorlekuan sartu zuten. Victor Fanneau de La Horie jenerala ezagutu zuen.	**1809/07/_**
6. Napoleon Elba uhartetik ihes egin ondoren (otsailaren 26an), Frantziara itzuli zen.	**1809/11/28**
7. Xabier Mina Larrea Otaon (Nafarroa) jaio zen.	**1810/03/29**
8. Urik eta janaririk gabe zeudela, setiatuak Sombrerotik irten ziren.	**1812/03/19**
9. Mina eta Espoz jaiki ziren Fernando VII.aren kontra Iruña askatzeko. Kale egin zuten.	**1810/05/25**
10. Labion frantsesek preso hartu zuten X. Mina.	**1814/05/03**
11. Mina Liverpooletik irten zen Irlandara *Caledonia* fragatan.	**1814/05/04**
12. Konbentzio Gerra (Pirinioetako Gerra) hasi zen, 1793tik 1795era arte.	**1814/09/25**
13. Xabier Mina eta Dibisio Laguntzailea Tamaulipasen lehorreratu ziren (Soto La Marinan).	**1815/03/20**
14. Xabier Mina Nafarroako Korsoko buru izendatu zuten. Minaren hasierako gerrillariak hauek izan ziren: Felix Sarasa (*Txolin*), Ramon Elordio, Lucas eta Jose Gorriz, Azkarate, (Gregorio Krutxaga eta Francisco Espoz Ilundain geroago sartu ziren Minaren gerrillan).	**1815/04/29** **1816/05/15** **1816/10/13**
15. Xauxillako Minaren proklama: bere asmo politikoak plazaratzeko.	**1817/04/21**
16. Cadizeko Gorteek Konstituzioa argitaratu zuten.	**1817/06/24**
17. Errealistek Venadito etxaldean Mina atxilotu eta Pedro Moreno hil zuten.	**1817/08/20**
18. Mina Sombrero gotorlekura heldu zen, Pedro Morenorekin bat egiteko.	**1817/10/19**
19. Xabier Minak Guanajuato hiriari eraso zion.	**1817/10/24**
20. Mina Bristolera (Ingalaterra) heldu zen, Bilbotik igarota.	**1817/10/27**
21. Mina Puerto Principera (Haiti) heldu eta Bolivarrekin elkartu zen.	**1817/11/11**
22. Fernando VII.ak indargabetu zuen 1812ko Konstituzioa.	
23. Espetxetik irten ondoren, Mina Lakarran elkartu zen Espozen Dibisioarekin.	

2b. Arrazoitu. Taldetan bildurik eman ezazu zure iritzia ondoko galdera hauei buruz, eta, jarraian, idatz itzazu denon artean adostutako iritziak eta hartutako erabakiak:
- Fernando VII.a Borboiak zergatik utzi zuen legez kanpo 1812ko Cadizeko Konstituzioa?
- Zergatik saiatu ziren Xabier Mina eta Francisco Espoz Iruña askatzen 1814an?
- Zergatik eta zertara joan zen Xabier Mina Mexikora?

Imprenta de Mina utilizada en Soto la Marina y enviada por Arredondo a Monterrey

3. Cronología

En el siguiente cronograma sobre Xavier Mina faltan algunos datos. ¿Serías capaz de encontrarlos y ordenarlos entre todos los que te ofrecemos en el recuadro final?





01/07/1789	• 4.000 soldados franceses entran en Iruña
03/05/1814	• El mariscal Liñan fusila a Mina por orden del virrey Apodaca
13/10/1816	• Golpe de estado de Fernando VII y abolición de la Constitución de Cádiz.
20/08/1817	• Las tropas de Mina derrotan al general realista Armiñan en Peotillos
24/05/2017	• Mina en Inglaterra conoce al general Scott, a Servando de Mier y a los Fagoaga
25/05/1809	• Mina gravemente herido cae en Labiano a manos de los franceses
27/10/1817	• Mina llega a Galveston y se reune con el comodoro Aury
29/04/1815	• Xavier Mina se reúne con la *Junta de Xauxilla*

4. El Corso Terrestre de Navarra / La Grande Armée (Ejército Imperial Francés)

4a. Irakur ezazu ondoko testu hau eta alderatu itzazu Nafarroako gerrillariak eta soldadu frantsesak.

Gerrillariek ekintzarik egin beharrik ez zutenean edo jazarriak zirenean, nor bere etxera edo babestokira biltzen zen, berriro elkartzeko deia entzun orduko. Gerrillariak hornitzeko dirua harrapakinetatik jasotzen zuten batez ere, askotan elizetan edo udaletxeetako zergetan lapurtutakoa baino ez zen. Frantsesei uniformeak, munizioak eta armak ebasten zizkieten. Hala, inoiz uniforme berdinez jantzirik, azaroko Utergako ekintzan gertatu bezala, frantsesek eta gerrillariek jardun behar izan zuten elkarren aurka. Bestela, uniformeak Iruñean eginarazi zituen Minak. Eta uniforme horiek gerrillariei helarazteko, hiriko lurperatzaileak, Migel Iriarte *Malacria*k, zerraldoetan gorderik garraiatzen zituen.

Frantzestadaren garaiko atsotitz batek zioenez, gerrillariek izan behar zituzten erbi baten oinak, lehoi baten bihotza eta euli baten sabela; alegia, gerrillariek izan behar zuten ausartak, arinak eta gartxuak. Gerrillariek kemen handia behar izaten zuten ondo prestaturiko eta hobeto armaturiko soldadu frantsesei aurre egiteko. Gerrillariek arinak izan behar zuten, batez ere ihes egiteko gauzak okertzen zitzaizkienean. Horregatik, soldadu frantsesen aldean zama arinagoa zeramaten, 10 edo 15 kilokoa: 4 kiloko fusila, sablea edo sastakaia, balak eta bolbora, zenbait kasutan pistolaren bat, manta edo tapakia eta janari apur bat. Frantsesen ohiko ekipamendua bikoitza izaten zen, 30-40 kilokoa. Gerrillarien ibilaldiak luzeak izaten ziren, inoiz 60 km-tik gora, egun berean frantsesei bi aldiz erasotzeko edota haien zalditeriatik korrika alde egiteko. Frantsesen gudarostea ez zegoen prest gerra mota horri aurre egiteko.

4a. Lee el siguiente texto y compara a los guerrilleros navarros con los soldados del ejército francés.

Cuando los guerrilleros no atacaban o tenían que huir de los franceses, se refugiaban en sus pueblos, hasta nueva orden para volver a juntarse. Se abastecían principalmente de los despojos y trofeos de guerra incautados a sus enemigos, así como del dinero de los impuestos a iglesias y ayuntamientos. A los franceses les robaban armas, municiones y uniformes. En más de una ocasión, como en la acción de Uterga en noviembre, les sobrevino algún ataque en el que los franceses y guerrilleros usaban el mismo uniforme. Mina también mandaba hacer uniformes en Pamplona, que posteriormente serían transportados dentro de ataúdes por el enterrador Miguel Iriarte Malacría.

Un proverbio de la época decía que los guerrilleros debían de tener los pies de una liebre, el corazón de un león y el estómago de una mosca; es decir, debían de ser ligeros, valientes y sobrios, para poder enfrentarse a un ejército bien preparado y mejor armado. Así, el equipamiento de un guerrillero era más ligero que el de un soldado francés, y podría contener entre 10 y 15 kilos, la mitad que el petate de un soldado enemigo –entre 30 y 40 kilos. Por lo común, los guerrilleros llevaban consigo un fusil de unos 4 kilos, un sable o daga, balas y pólvora, y en algunos casos pistolas además de una manta y algo de comida. Este equipo ligero les permitía huir rápidamente de los franceses o realizar largas marchas diarias de más de 60 km, e incluso, atacar más de una vez al enemigo en la misma jornada. En definitiva, el ejército francés no estaba preparado para hacer frente a una guerra de guerrillas.

4b. Jarduera osagarria: Irudietan oinarriturik deskriba itzazu gerrillarien eta soldadu frantsesen janzkera.	***4b. Actividad complementaria. Basándote en las ilustraciones describe las vestimentas de los guerrilleros y soldados franceses.***

II) LABIANO, 1810

1. Nor da nor?

a) Irakurri aurretik talde txikietan bildurik:

- Erreparatu iezaiozu ondoko testuaren izenburuari eta bilatu informazioa hor agertzen den urteari eta tokiari buruz: 1810 / Labio.
- Erreparatu testuko hiru irudiei eta komentatu zuen artean nor izan zitezkeen pertsonaia horiek. Ba ote da alderik batzuen eta besteen artean?
- Zuen usez zer kontuko du testuak?

b) Irakurri bitartean azpimarra ezazu zuretzat deigarriena dena, zure lagunekin komentatzeko:

- Taldekide guztiok gauza berberak azpimarratu dituzue?
- Nola erantzun ditzakezue testua irakurri bitartean sortu zaizkizuen zalantzak?

c) Irakurri ondoren

- Bete ezazu irakurgaiaren ondoko taulari falta zaizkion datuak: *Nor da nor?*
- Nafarroako mapa bat erabiliz, marraztu ezazu Xabier Minaren ibilbidea, Kataluniatik Nafarroara itzuli zenetik preso erori arte.

- Labiano: 1810eko urtarrila-martxoa

1810eko otsailaren hasieran, Mina Lleidara joan zen eta, kanpoan egon bitartean, Krutxaga izendatu zuen gerrillarien buru. Ordurako Uxueko abadearen laguntza galdu zuen, uxuetarrak Sevillaraino alde egin behar izan zuelako frantsesek jazarria. Apaizaren desagerpenak kaltetu zuen gerrillarien espioitza-sarea eta, ondorioz, horien ekintzak ausartago bilakatu ziren: ausartagoak eta arriskutsuagoak ere bai.

Lleidan Orgazeko kondearekin elkarrizketatu zen Mina eta, ondoren, San Andres de Tonara (Vichetik hurbil) joan zen. Han Enrique O'Donell Kataluniako kapitain jeneralarekin hitz egin zuen, eta, Nafarroara itzuli aurretik, harengandik agindu berriak jaso zituen: batetik, Sucheten jeneralaren mugimenduak eragotzi behar zituen, frantsesa Valentziara joan ez zedin eta, bestetik, Kataluniatik

igorritako laguntzarekin Kantauriko porturen bat askatu behar zuen, ingelesek laguntza eta armak handik sar zitzaten.

Mina Katalunian zegoen eta, artean, bere gerrillariek ez zuten denborarik galtzen. Otsailaren 22an, Krutxagak, Félix Sarasak eta Luzaideko apaizak Auritzeko goarnizio frantsesaren kontra jo zuten. Martxoaren 6an, Krutxagak, Espozek eta Sarasak Irunberriko goarnizioari eraso zioten eta bertako 72 defendatzaile frantsesak preso hartu ere bai. Azken ekintza horretan Krutxaga larriki zauriturik gertatu zen eta, hurrengo hilabeteetan sendatu bitartean, ezkutuan egon zen gainerako erasoetan parte hartu ezinik.

Azkenean, martxoaren hasieran Mina Nafarroara itzuli zen, eta harekin batera Buquet jeneral frantsesa, jendarmeen buru. Louis Léopold Buquet jeneralak jendarmeria antolatu zuen martxoaren 10ean Nafarroan, Moncey mariskalaren aginduetara. Jendarmeak eskarmentu handiko soldadu zaharrak ziren eta Nafarroako herri garrantzitsuenetan kokatu zituzten: Iruña, Erriberri, Tebas, Caparroso, Valtierra, Urroz, Zangoza, Lizarra eta Lodosa. Bitartetan Minak ekin eta ekin jarraitzen zuen Nafarroan eta Aragoin frantsesei erasotzen, Kataluniatik ekarritako egitasmo berriak bete nahian. Horiexek izango ziren gerrillari gaztearen azken ekintzak Nafarroan.

Martxoaren 12an, Minak Oibarren atzera bota zituen 400 soldadu frantses Lergaraino, eta, 15ean, Kasedan seiehun bat oinezko eta ehun bat zaldizko bildu ondoren, Aragoi aldera joan zen, Uncastillo zeharkatuz. Martxoaren 18an, Minak eta Ansoko Sarto gerrillariak Ejea de los Caballeroseko goarnizioko 400 soldaduei eraso zieten guda-zelai zabalean. Han 72 hildako eta hainbat zauritu izan zituzten frantsesek eta, gainera, Gaudovin komisarioari bere dokumentuak lapurtu zizkioten. Hurrengo egunean frantsesak Minaren bila joan ziren Biotaraino, baina aldez aurretik Mina eta bere gerrillariak Sadabara bildu ziren eta handik Caparrosora itzuli. 21ean, Caparrosotik hurbil, 300 soldaduk babestutako konboi frantses bati eraso zioten, eta garraiatzen zituzten fusilak eta jendarmeen jantziak lapurtu. Egun berean Aragoi ibaia zeharkatuta, Miranda de Argako goarnizioari eraso zion. Harrezkero, Muruzabal eta Utergara erretiratu zen.

Aurreko egunetan Dufourrek agindutako indarrak abiatu ziren Jaka, Iruña eta Zaragoza hirietatik Mina atzemateko asmoz. Iruñetik irtendako oinezkoen zutabe batek eta zaldizkoen beste batek Utergan harrapatu zituzten Minaren gerrillariak martxoaren 25ean, eta, borroka latz baten ondoren, alderdi guztiak erretiratu ziren nor bere aldetik: Frantsesak Iruñerantz eta Minaren gizonak Gerendiainera, Olatz-

Zubitza zeharkaturik. Hildakoen artean, frantsesen zutabea agintzen zuen *Moro* deituriko ofizial mulatoa aurkitu zuten.

Minak ez zien frantsesei atsedenik ematen, eta frantsesek hari ere ez: Minaren gerrillariak akiturik, erretiran ihesi zihoazela, frantsesei behin eta berriz erasotzen zieten eromenezko ekintzetan. Tregoarik ez, atsedenik ere ez: jo eta ke eten gabe. Bi astetan hamaika borroka latz eta bortitz burutu zituzten frantsesen aurka.

Martxoaren 27an, Tebasen Minak eraso zion bere bila zihoan zutabe bati Iruñerantz ihes eginaraziz. Azken borroka! Harrezkero, Mina Labiora joan zen aterpe bila. Hantxe geratu zen Orgazeko kondeak bidali behar zizkion munizio eta errefortzu batzuen zain, Orbaitzetako arma-ola leherrarazteko.

Gerrillariek atseden hartu behar zuten, nekatuta zeuden eta, orduan ez bazekiten ere, frantsesek erabat inguraturik zeuzkaten. Frantsesek bazekiten non ezkutatzen zen Mina, haien informazio-sarea ere ondo zebilen, eta aurreko egunetan argitaratutako bandoek eta mehatxuek azkenean eragina izan zuten nafarrengan. Alabaina, Mina lasai zegoen, ez zituen frantsesak alderdi hartan espero, eta seguru sentitzen zen Arangurengo bailarako Labio herrian, Pedro Joakin Munarriz lagunaren etxean.

Dufour gobernadoreak uste zuen otsailean gerrilla desagertua zela ekintza gutxi izan zituztelako, eta espioiei esker jakin zuen Mina Kataluniara ihesi joan zela. Hori zela-eta, indultuak ematen hasi zen nafarrak bereganatu nahian. Baina martxoan, Minaren erasoak berriro piztu zirela jakitean, sinesgaitza bezain eramangaitza izan zitzaionez, haren bila Schmitz maiorra bidali zuen hiru zutaberen buru: 170 soldadu eta jendarme.

Martxoaren 29a frantsesek Mina preso hartu zuten Labion, 8 hilabetez Napoleonen kontra borrokatu ondoren. Harrapatu zutenean *Corso Terrestre*-ak bazituen 700 bat oinezko eta ehun bat zaldizko. Egun hartan, Schmitzen soldaduek Labio inguratu zuten. Segada hartaz gerrillariak konturatu zireneko, Espoz irten zen guztien aurretik talde txiki baten buruan eta, hark alde egitea lortu bazuen ere, atzean geratu zen Minaren zaldia bidean erori eta zaldun gaztea lurrean irauli zuen. Beste bertsioek diote Espozek alde egin zuela bera izan baitzen lehena ihes egiten, Mina frantsesen kontrako defentsa antolatzen saiatzen zen bitartean. Edozelan, buruzagi gazteak lurretik altxatu eta bere pistolak hartzeko betarik izan gabe, Mixel eta Gallien (nafarrak ote?) V. eskoadroiko jendarmeek ezpata kolpe batez ezkerreko besoan larriki zauritu eta atzeman zuten preso. Perrin sous-lieutenantak agintzen zuen harrapatzaileen pelotoi hura. *Mina est pris!* entzun zen urrunean. Frantsesek sarekada hartan hainbat gerrillari hil zituzten, eta beste hainbat

atxiloturik Iruñeraraino eraman zituzten Xabier Minarekin batera.

Nolanahi ere, orduan ere, Minak egin ohi bezala, bere gizon gehienak sakabanatu zituen inguruko herrietan, eta, hori zela-eta, ez zituzten denak harrapatu. Bestela, Minaren gizon guztiak elkarrekin egon izan balira, frantsesek ezin izango zieketen eraso edo, erasotzekotan, emaitza bestelakoa izango zatekeen, dudarik gabe. Atxiloketa horrek argi erakusten du une horretan frantsesek egiazko informazioa izan zutela Minari buruz, eta bakarrik atxilotu ahal izan zutela traidoreei edota salatariei esker. Saltzaileak nortzuk izan ziren ez dakigu, baina ezbairik gabe, traizio guztietan bezala, hurbileko jendeak izan behar izan zuen. Bestela, Schmitz jeneralak une horretan Minak zenbat gizon zituen ziur jakin gabe ez zatekeen inoiz ausartuko gerrillarien kontra aurrez aurre borrokatzera.

Labioko frantsesen erasoaz badira bertsio anitz. Espozek bere *Memorias* idaztean dio 3.000 soldaduk eraso zietela, eta Emmanuel Martin jendarmeen kapitainak, aldiz, 170 baino ez. Bertsio gehienek Espozen kontakizunari jarraitzen zioten, baina, Espozek idazkietan bere burua baino ez zuen justifikatzen, atxiloketaren errua Xabierri berari leporatuz, deskantsatzean behar besteko ardura hartu ez zuelako.

(Kepa Larrea. *Mina edo libertatea!*)

Izena	**Militar frantsesak**	**Militar espainolak**	**Gerrillari nafarrak**	**Ezaugarriak**
Uxueko abadea				
Orgazeko kondea				
		x		Kanpo mariskala . Kataluniako kapitain jenerala
Luis Gabriel Suchet	x			
Xabier Mina			x	
Gregorio Krutxaga				
Francisco Espoz				
			x	Xabier Minaren taldeko gerrillaria
				Jeneral frantsesa, Nafarroako jendarmeen burua
Bon-Adrien Jeannot de Moncey				
Francisco Sarto				
	x			Jenerala. Nafarroako gobernadore frantsesa
Mixel				
Gallien				
				Sous-lieutenantak agintzen zuen harrapatzaileen pelotoia
Schmitz				Ofizial frantsesa. Mina jazartzen zuen batailoiaren burua

2. Ibilaldiak / *Marchas*

- Marraztu ezazu Xabier Minaren ibilaldiak Nafarroan
- Dibuja las marchas de Xavier Mina en Navarra



3. Adiskideak eta traidoreak

Xabier Minak bere ibilbidean lagun zein etsai asko topatu zituen. Hona horietako hainbat: Pablo Erozain, Josep Sardà, Pedro Moreno, Louis Aury, Segundo Correa, José Alvarez de Toledo eta Jean Lafitte.

- Jakingo zenuke esaten nor ziren lagunak eta nor etsaiak?
- Irakur ezazu ondoko testua eta informazio horretaz baliaturik, saiatu zaitez taula betetzen. Orduan jakingo duzu nor ziren lagunak eta nor ez.

1. Kapitain hau Nafarroako sorlekutik Minaren ondoan egon zen beti eta Mexikoko borroketan besoa galdu zuen.
2. Katalana ez zen komodoroa.
3. Segundo Correa Kanariar uharteetan jaio zen.
4. Jeneraltzat bere burua zuena Kubakoa zen.
5. Inork ez daki egiatan non jaio zen Jean Lafitte, Haitin edo Miarritzen.
6. Josep Sardàk Soto la Marinako gotorlekua defendatu zuen, Minaren aginduak zintzo betez.
7. Mexikarra Minaren ondoan borrokatzen zegoela, Venadito etxaldean harrapatu eta bertan hil zuten errealistek.
8. Louis Auryk ez zion Minaren mugimenduen berri eman Luis Onís enbaxadore espainiarrari.
9. Galvestonera Minaren mugimenduak espiatzera joan zena ez zen izan Galvestonen, Minaren aurka matxinatu zen kapitaina.
10. José Alvarez de Toledo ez zen itsaslapurra.
11. Frantziarrak Minaren espedizioari lagundu zion Soto la Marinaraino, itsasontzien komodoroa zelako; baina ez zen ez Sardá ez eta Lafitte ere.
12. Pedro Moreno ez zen maiorra.
13. Pablo Erozain nafarra zen, Louis Aury frantsesa, eta Pedro Moreno Mexikarra.
14. Álvarez de Toledo ez zen katalana eta ez zen Galvestonera joan Minaren aurka matxinatzera.
15. Mexikarra ez zen komodoroa, ez itsaslapurra, ez maiorra ez eta kapitaina ere.
16. Ezein kapitain ez zen itsaslapurra.
17. Katalana maiorra zen, baina ez zen Minaren aurka Galvestonen matxinatu zen Segundo Correa

	1	2	3	4	5	6	7
Izen-abizenak	**Pablo Erozain**	**Josep Sardà**	**Pedro Moreno**	**Louis Aury**	**Segundo Correa**	**José Alvarez de Toledo**	**Jean Lafitte**
Nongoa?							
Gradua edo lanbidea							
Eginkizuna							

Jean Lafitte

Louis Aury

José Älvarez
de Toledo

Xabier Mina eta
Pedro Moreno

- Ezagutzen duzu Xabier Minaren beste lagunik edo etsairik? Bila ezazu informazioa.

III) ATLANTIKOAN ZEHARREKO ITSASALDIA

1. Atlantikoan zeharreko itsasaldia

a) Testua irakurri aurretik idatz itzazu *Caledonia* itsasontziari falta zaizkion atalak, marratxoen ordez izenak jarriz:



b) Atlantikoan zeharreko itsasaldia testua irakurri ondoren, talde txikietan bildurik honako galdera hauei erantzungo zenieke?:

- Zenbat egun iraun zuen bidaiak Liverpooletik (Ingalaterra) irten zirenetik Norfolkera (AEB) heldu arte?
- Mapa batean marraztu ezazu *Caledonia* fragataren itsasaldia.
- Zenbat kilometro eta itsas milia egin zituzten bidaian, Irlandatik berriro Ameriketan lehorreratu arte?
- Zergatik iraun zuen bidaiak hainbeste egun?
- Batez beste zein izan zen *Caledonia* fragataren abiadura?

(Laguntza!:Galdera horiei erantzuteko, kontuan izan irakurgaiaren ondoren jarri diren oharrak eta grafikoak)

- Atlantikoan zeharreko itsasaldia

Ingalaterratik irten orduko jeneral deitzen zioten Xabier Mina gazteari. Ingalaterratik 1816ko maiatzaren 15ean irten zenetik Mexikon 1817ko azaroaren 11n hil zuten arte hamazortzi hilabete igaro ziren: hamazortzi hilabete konspirazioz, borrokaz eta traizioz beterik. Hilabete luzeko itsasaldiaren ondoren, hurrengo bederatzi hilabete eta erdiak Mexikorako bidaia prestatzen eman zituen Ipar Amerikan eta Kariben, eta, gainerako zazpiak, Mexikon borrokatzen.

1816ko maiatzaren 15ean, Frantziatik heldu behar ziren lagunei itxaron gabe, *Caledonia* fragata irten zen Liverpooletik Corkera (Irlanda). Itsasontzi hori ez zen zaharra, 15 urte lehenago eraiki zuten esklaboen garraiatzeko. Irrigarria zirudien, baina itsasontzi horrek Mexiko askatu nahi zuen taldea eraman zuen, esklaboak Ameriketara eraman beharrean.

Lau eguneko bidaiaren ostean, maiatzaren 19an, *Caledonia* Corkera (Irlandara) heldu zen. Frai Servandoren eskutitzei zor zaio bidaiari buruzko informazio gehiena. Fraideak zioenez, 50 bat pertsona joatea espero zuten arren, hogeiren bat baino ez ziren bildu azkenean. Beste guztiak hurrengo bidaia batean helduko ziren Ameriketara.

Bidaiarien bostena traidoreak ziren eta, ikusiko dugunez, bost liberal espainol Minaren kontra matxinatu ziren itsasoan: Pavía, Humendia, Escaño, Pasamonte eta Dondé. Horiek guztiak ekin eta ekin ari ziren Mina xaxatzen eta haren agintea zalantzan jartzen. Istiluak izan ziren itsasaldian, baina azkenean, matxinadak kale egin zuen eta matxinoak elkarren artean liskarretan hasi ziren, batak bestea salatu baitzuen.

Bidaiak aurre jarraitzen zuen giro nahasi hartan, harik eta itsasontziko kapitaina eta tripulazioko marinel guztiak Minaren alde lerratu ziren arte. Orduan amaitu ziren istiluak.

Erauntsiek eta kontrako haizeek gehiegi luzarazi zuten bidaia, eta hilabete eta erdiren buruan Ipar Amerikako kostaldera heldu ziren. Tarte horretan, frai Servandok dioenez, Mina birritan gaixotu zen eta Azore uharteetatik hurbil igarotzean txalupa bat bidali zuten jaki bila: *"Con estas cóleras el General estuvo mui malo dos veces de sus ataque de bilis"*. Bidaia luze eta neketsua egin eta gero Norfolken (Virginia) lehorreratu ziren. Ameriketara heldu eta biharamunean X. Minak 28 urte beteko zituen.

(Kepa Larrea. *Mina edo libertatea!*)

<u>Aurreko galderei erantzuteko laguntza: oharrak eta grafikoak:</u>

- Zenbat egun iraun zuen bidaiak Liverpooletik (Ingalaterra) irten zirenetik Norfolkera (AEB) heldu arte?
Kontuan izan testuan agertzen diren datak: urtea, hilabeteak, egunak.

- Mapa batean marraztu ezazu *Caledonia* fragataren itsasaldia.

- Zenbat kilometro eta itsas milia egin zituzten bidaian, Irlandatik berriro Ameriketan lehorreratu arte?
Bidaiaren nondik norakoak zehaztu ondoren modu ezberdinez kalkulatu daitezke distantziak kilometrotan zein miliatan:

a) 'Gogle Maps' zerbitzuak bi tokiren aldeak erakusten ditu, baldin eta saguaren ezkerreko botoia sakatzen baduzu eta "Distantziak neurtu" aukeratzen baduzu.

b) Lur-globo batean hari batez zehaztu tokien arteko aldeak eta jarraian neurtu hariaren luzera. Kontuan izan zein den lur-globoaren eskala.
Mapa lau batean eta lur-globo baten gainean distantziak neurtzean emaitza berberak lortzen dira? Zergatik?

c) Funtzio eta kalkulu trigonometrikoak erabiliz zehaztasun handiz ere neurtu daitezke lurraren puntu biren arteko aldea. Horretarako kontua izan ondoko datuak:



Koordenatu geografiko sistemak Lurreko edozein puntu adierazten du koordenatu esferiko sistemako hiru koordenatutik bi erabiltzen.
Lurreko lekuen arteko distantzia kalkulatzeko, edo pertsona bat, hiri bat, mendi bat eta abar non dagoen, kokapen sistema zehatz bat sortu zen, erabilerraza eta gehiengoak onartua. Koordenatu geografikoak irudizko lerroak dira, paraleloak eta meridianoak, lurbira globoetan eta mapetan ageri direnak, laukisare antzeko bat osatuz.
Latitudea edozein puntu eta ekuatorearen arteko angelua da. Latitude konstanteko puntuak batzen dituen marra paraleloak dira. Lurraren inguruan zirkuluak sortzen dituzte, ahalik eta poloan 90ºko latitudea dagoen arte.
Longitudea Lurreko puntu aukeratu batekiko ekialdera edo mendebaldera dagoen angelua da. Gaur egun, Greenwicheko Royal Observatory delakoan dago jarrita 0ºko puntua.
Luzera konstantea duten puntuak meridianoak dira. Meridianoak ez dira paraleloak, Ipar Poloan eta Hego Poloan elkartzen baitira.
Meridianoek ordu banaketa egiteko ere balio dute eta, horren bidez, Lurraren ordu-eremuak ezagutzeko.

Bilatu puntuen arteko koordenadak: latitudea eta longitudea. Adibidez:
Liverpooleko koordenatuak.
- Latitudea: 53°24′38″ N
- Longitudea: 2°58′40″ O

Koordenatu berberak dezimaletan ere ager daitezke, gradutan eman beharrean:
- Latitudea: 53.4105800
- Longitudea: -2.9779400



LURRAREN NEURRIAK

Ekuatoreko diametroa :
12.756 km.
Poloen arteko diametroa :
12.713 km.
Ekuatoretik zirkunferentzia :
40.076 km.
Poloetatik zirkunferentzia :
39.742 km.

Zein da A eta B puntuen arteko aldea?
A = Liverpool
B = Azore uharteak (Ponta Delgada)

- Zergatik iraun zuen bidaiak hainbeste egun?

Testuan agertzen diren datak kontuan hartzeaz gain (zer gertatu zen bidaian), erreparatu ondoko mapari:

- Nondik nora doaz itsaslasterrak?
- Nondik nora zihoan X. Mina *Caledonia* itsasontzian?
-

Itsaslasterrak milaka kilometro luze izan daitezke. Oso garrantzitsuak dira, kontinenteko klimari zuzenean eragiten baitiote, batez ere ozeano ertzetako lurraldeetan. Itsaslaster ezagunena eta eragin nabariena duena Golkoko itsaslasterra (Gulf Stream) da, Europa mendebaldeko tenperatura igotzen baitu, latitude bereko beste eskualdeekin alderatuta.

- Batez beste zein izan zen *Caledonia* fragataren abiadura?

Kontuan izan abiadura dela espazioaren eta denboraren arteko erlazio bat.
Bestalde, itsasontzien abiadura ez da kilometro/ordukoka neurtzen, korapiloka baizik. Adibidez, *10 korapiloko abiadura daramagu*.

Zergatik erabiltzen dira korapiloak itsasontzien abiadura neurtzeko?

Antzina, hurbileko erreferentzia fisikorik gabe, zaila zen itsasoan abiadura neurtzea. Prozesua ontziaren popatik soka bat lotuta zuen enbor bat edo egur zati bat botata hasten zen. Enborra ur azalean flotatzen eta geldirik geratu arte itxaroten zuten, eta ondoren hasten ziren itsasontzia egurretik zer abiaduratan aldentzen zen neurtzen.

Distantzia kalkulatzeko, sokari korapiloak egiten zizkioten, batetik bestera 47 oineko gutxi gorabeherako tarteak utziz, eta korapiloak kontatzen zituzten soka ontzitik irten ahala.

Baina abiadura neurtzeko, distantzia unitateez gain, denbora unitateak behar zituzten, eta harea ordulariak –minutu erdi ingurukoak– baliatu zituzten horretarako. Beraz, bi lagun behar ziren lan horretan: bata erlojua iraultzeko eta bestea korapiloak kontatzeko. Eta erabilitako tresnak oso zehatzak ez zirenez, emaitzak ere hala-moduzkoak izan ohi ziren.

Dena den, denboraren eta korapiloen arteko proportzioa doituz joan zen, orduko itsas miliekin bat egin arte, eta egun, sateliteen garaian, oraindik ere korapiloak dira itsasoan abiadura neurtzeko erabilitako unitateak.

Argia aldizkaria. Nagore Irazustabarrena

Nola kalkulatu abiadura?

Denbora tarte zehatz batekiko gertatutako posizio aldaketa:

Abiadura lortzeko honako formula hau formula aplikatzea besterik ez dugu :

v = abiadura
s = distantzia (km, itsas milia)
t = denbora (ordua)

$$v = \frac{s}{t}$$

Itsas milia 1 = 1,852 kilómetros

Korapilo 1 = Itsas milia 1 orduko = 1,852 km/h

IV) OLERKIAK ETA IRUDIAK

1. Bertsoak eta kantak / *Poemas y canciones*

1a. Frantsestearen garaian, eta geroago ere bai, bertsoak, koplak eta kantak beti izan dira propaganda politikoaren euskarri. Alde batekoek zein bestekoek erabili izan dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, Mexikon zein Euskal Herrian. Hainbat kantak Xabier Mina izan dute hizpide. Hona, bada, horietako batzuk.

1a- *Tanto en la francesada como en épocas posteriores, las canciones y poemas siempre han sido instrumentos de la propaganda política. Todos los bandos las han utilizado en euskara y en castellano, en México y en Vasconia. Algunas de ellas le tienen a Xabier Mina de protagonista.*

Mina de mi vida,
Longa de mi amor
Don Gaspar de Jáuregui
de mi corazón.
***
Campillo para su gente
tiene cara de enfadado,
pero para las mozuelas
el piquito resalado.
***
Longa le dijo al caballo:
sácame de este arenal,
que me vienen persiguiendo
los de la guardia imperial.
***
Síguela, síguela,
guerrillero de Saornil,
síguela, síguela
yo te daré mi fusil.
***
Adiós, puente de Tudela,
por debajo pasa el Ebro,
por encima los franceses
que van al degolladero.
***
¡Que por una partida
de brigandaje
se encerrase en Cartuxa
tanto salvaje

Kopla zaharrak

Bosteun boluntario
lengo egunean
Lekeitio'n sartu diraz
buenamentean;
Mina de bebia(??),
Longa de mi amor,
Antsotegi, Campillos
de mi corazón.

Boluntario sartu nintzan ni
neuretzat zorigaitzian;
iru balazok ere jo naute
aiek alako trantzian:
bat txapeletik pasa zitzaidan,
bi pantaloien ertzian.

Boluntario mixerabliak
agitz ditut nik erruki:
enemigua gañetik eta
erreziyua urruti.
Gure bizitza nolakua dan
Jaun Zerukuak badaki.

Nere lagunak, ez ikaratu
ausentu onetan geiegi,
iru nagusi baditugu ta
segi daiegun berari:
bata da Mina, bestea Longa,
biba Don Gaspar Jauregi!

Antonio Zabalak bildua (1991)*:*
Frantzesteko bertsoak

1b. Mexikon kanta ugari eskaini dizkiete askatzaileei (Xabier Mina tarteko); batzuk ezagunagoak besteak baino, eta horietako hainbat ahoz aho transmititu dira:

1b. *México ha dedicado muchas canciones a los libertadores, entre otros a Xavier Mina, y algunas se han trasmitido de generación en generación:*

Serian las tres de la tarde

Serian las tres de la tarde
cuando Mina se embarcó,
Mina le dijo a su madre:
"écheme su bendición,
que me voy a tierra de indios
con todo mi batallón.

Más fuerte que el tejo, Mina.
Todo el mundo lo sintió,
y el valeroso Selotucar
las lagrimas derramo.

¡Adiós Fuerte del Sombrero!
Cañadas de los laureles,
donde murieron los hombres
soldados de Pedro Moreno.

¡Adiós Fuerte del Sombrero!
no se olvida esa historia,
queda para siempre escrita
y grabada en la memoria.

Joseba Sarrionandiak aipatua, 2003.
